




BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA



AIURRI

1997ko martxoaren 26a. 55. zenbakia. Doan banatzen da.



*Foto
Echarri*

- **ORDUBETEAN ERREBELATUA**
- **ARGAZKI ESTUDIOA**
- **LEHEN JAUNARTZEAK**
- **EZKONTZA ERREPORTAIK**
- **MARKOZKETA**
- **ANPLIAZIOAK BEREZIKI**

Elizondo Plaza, 2 atzealdea - ☎ 59 41 48 - ANDOAIN

Juan de Urbietta, 8 - ☎ 55 29 39 - HERNANI — Kale Nagusia, 17 - ☎ 36 14 84 - LASARTE


EUROPEAN SCHOOL HIZKUNTZ AKADEMIA

- ✓ JATORRIZKO IRAKASLEGO TITULUDUNA
- ✓ TALDE MUGATUAK
- ✓ IKASTAROAK URTE OSOAN
 - "STEP UP" PROGRAMA,
 - ESKOLARAKO LAGUNTZA
 - ENPRESETARAKO IKASTARO BEREZIAK
- ✓ AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- ✓ CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANCAISE TITULUTARAKO AZTERKETAK
- ✓ AU-PAIR, ✓ WORK-STUDY,
- ✓ HIZKUNTZA IKASTAROAK IRLANDA-FRANTZIA-BREITAINIA HANDIA

INGELES - FRANTSES

Kale Berria, 10 Tel. - Fax 69 39 76
BILLABONA

KIROLA EGITEKO ETA
ZURE ATSEDENALDIRAKO



GURE UDABERRI-UDARAKO AZKEN
KOLEKZIOAREKIN ZURE ZAIN GAITUZU

Juan Bautista Erro, 2 - Telf./Fax 943-59 18 06
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)

fotocolor

ERREBELATUA ORDU
ERREBELATUA ORDU
EAN

Zure argazki
denda



 **Kodak**
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
J.A. Rodrigez "Txiki".
"Territorio comanche"
2. **GALDEZKA.**
Eta zu, zein herritan biziko zinateke?
3. **LARRAUL.**
Etxe eta baserrien apainketa amaitu da.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Gizarte laguntzaile berria.
Herriko historia ikertzeko dirulaguntzak.
101 urte ateak zabalik.
7. **ASTEASU.**
Bi mila zuhaitz berri Egiederren.
- 8-9. **BILLABONA.**
Euskaraz idazteko lehiaketak.
Kiroldetako lanen berrikustea.
10. **ZIZURKIL.**
Beterriko liburuaren aurkezpena / Oharra.
11. **BASERRIA.**
Emakume baserriarren eskubideak.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Beterrri-Aiztondo korrika!
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Javier Perez Guerras: "Homeopatiak irauten badu emaitza onak lortu direlako izango da".
- 16-17. **KIROLA.**
Txirringularitza: afizioa eta ofizioa.
Xabier Usabiagarekin solasean.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **ZER BERRI?/LEHIAKETA**
20. **AGENDA.**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udatak.
Zuzendaria: Ainhoa Oiartzabal. **Maketatzailea:** IPAR, S.L. **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiertza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia.
Lege-gordailua: SS-202/94
ISSN: 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



"TERRITORIO COMANCHE"



"TXIKI"

Barka nazazue Arturo Lopez Revertek eta Gerardo Hierrok zuen nobela eta pelikularen titulua hemen erabiltzeagatik, baina zutabe hau idazten hasi naizenean bapatean burura etorri zait, eta azaldu nahi dudanarako egokia dela deritzot.

"Territorio comanche", bai, horixe bihurtu nahi dute Euskadi bertakoak ez diren, gurekiko eta gure gauzekiko inongo begirunerik ez duten eta, gehiago esango nuke, gorrotatzen gaituzten kapitaleko zenbait "tertuliano", kazetari, komunikabide, sasi-intelektual eta abar luze batek.

Bai, haien ustetan inpernuko atarian bizi gara, hango su eta garretan kiskaltzeko arrisku bizi, beldur eta presioaren menpekotasunean, goibel eta burumakur, gutxienco askatasunik gabe. Gurea ez omen da bizi-modua!

Honezkero hasiak dira justizian salbuespen-cremuak eskatzen, eta hemendik gutxira salbuespen egoera orokorra aplikatzea izango dute eskakizun. Hortik aurrera, auskalo! Akaso, gu "salbatzeko" Albako Duke berri batek -hautagaiak ez dira faltako-komandaturiko "cruzada" berri bat eratzten hasiko dira -"Por la salvación del País Vasco"-, edota Euskadiko mugak arantzak dituen alambrezko hesiz inguratuko dituzte, gure gaixotasun honetaz -izurritea baino arriskutsuagoa omen dena- kutsatuak izan ez daitezten.

Ba ez, letra larriaz eta ozenki, ez! Arazo larri bat dugu eskuartean, bai, baina aurrera egiteko gai izango gara. Zuen itsukeria besterik ikusten uzten ez badizue edo besterik ikusi nahi ez baduzue ere, gorria eta beltza ez dira gure gizarte honen kolore bakarrak, Euskadiko kaleidoskopioan kolore guztiak ditugu. Ez, hau ez da "territorio comanche".

Utikan, pozoinez beteriko zuen iradokizun eta errezetak, justizian oinarritutako benetako pakea ez baitute helburu. Ez zaituztegu behar. Utz gaitzazue pakean!



Aldizkari honek Eusko Jaureritza Kultur Sailaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur eta Euskera Departamenduaren laguntza jaso du.

ETA ZU, ZEIN HERRITAN BIZIKO ZINATEKE?

Mendia, itsasoa, jendea, martxa, lasaitasuna, zerbitzuak, bakardadea..., eta antzeko gauza gehiago aurkitu nahi dugu bizitzera joan nahi dugun herrian. Askok, ordea, ez dugu bizi nahiko genukeen tokia aukeratzeko posibilitaterik. Hala ere, ametsetan bada ere, behin baino gehiagotan bidaiatu dugu bizitzeko txoko xarmangarri horretara.

Batzuek herri txiki bateko baserri batera egiten dute ametsetako bidaiari hori; beste batzuek aldiz, Donostiako hondartza parean dagoen pisu batera jotzen dute; baina Beterri-Aiztondoko bizilagun gehienek, ordea, beren herrietan gelditu nahi dute bizitzen, eta gainera, ez lukete beren herria beste baten truke aldatuko, ez horixe.



Juan Jose Tejeria, langabea. Zizurkil.

Ni, egia esan, oso gustura bizi naiz hemen. Donostia, adibidez, pasiatzeko bakarrik atsegin dut, ez bertan bizitzeko. Hemen aldiz, inguru hauetan, mendira joateko paraje ederrak daude.



Juan Luis Astiazaran, trikilitaria. Billabona.

Hemen bizitzera ohitu gara, ondo bizi gara hemen. Ohituta gauden lekuan bizi gara gustura.



Judith Fidalgo, ikaslea. Andoain.

Oraindik ez dut gurasoen etxetik kanpora bizitzera joateko asmorik, baina hori egitekotan, Andoainen bertan geldituko nintzateke bizitzen. Ez ditut atsegin herri handiak, nahiago dut mendialdean bizitzea. Andoain, gainera, ongi komunikatuta dago.



Dominika Urreta, etxekoandrea. Andoain.

Hondarribi herria aukeratzeko nuke bizitzeko herri gisa. Herri txikia eta lasaia da, asko gustatzen zait. Hala ere, oso gustura bizi naiz hemen, Andoainen.



Josune Gerrikagoitia, etxekoandrea. Aduna.

Duela bi urte etorri nintzen Adunara bizitzera. Beraz, ez naiz hemendik bizitzera beste nonbaitera joango. Oraingoz gustura bizi gara hemen, herri handietan baino erraztasun gehiago dituzu aparkatzeko..., lasaigoa da.



Ramoni Carrasco, etxekoandrea. Asteasu.

Hogeita zazpi urte daramatzat Asteasun bizitzen, eta oso gustura gaude bertan. Nik ez nuke herri hau beste batekin aldatuko. Lasaitasun handia dago hemen, eta gainera, ez gaude herri handietatik urrun.



LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MAPRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

S T O P
LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelese, frantsesez,
italieraz...)

Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

ETXE ETA BASERRIEN APAINKETA AMAITU DA

Beste bi urtetan egingo duten kanpaina da

Hogeita hamabost baserrietako aurrealdeak txukundu dituzte orain arte baserriak eta etxeak txukuntzeko kanpainari esker. Larraulgo Udalaren dirulaguntza jaso dute herritarrek beren etxeak txukuntzeko, eta datozen bi urtetan ere dirua emango du udalak herriko baserriak eta etxeak edertzeko.

Etxea zuritu, ingurunea garbitu eta txukundu, loreak jarri, etxeko sarrera apaindu eta beste antzeko lanak egin dituzte herritarrek euren etxetan. Lan horien kostuaren zati handi bat 5B plana delakoak eskaintzen duen dirulaguntzaren bitartez ordaindu dute.

Apainketa kanpainaren lehen fasea bakarrik burutu dute oraingoz. Izan ere, bukatu berri duten etxeen apainketa hori, 1996. urteari zegokiona izan da. Hurrengo bi urtetan etxe horiek eta beste etxe edota baserriek kanpaina horretan parte ahal izango dute. Beraz, hasi baino ez da egin etxeak txukuntzeko ekimen hori.

Herritarrek oso harrera ona egin diote kanpainari, hori da behintzat Josu Tellabidek esan diguna: "Hasiera batean kanpaina egiten bastea asko kostatu zen, baina azkenean, kanpaina arrakastatsua izan da. Herriko etxe ia denek berriitu dituzte beren fatxadak". Hala ere, etxea apaintzeko iazko dirulaguntza jaso ez duen baserririk bada. Bost baserri dira dirulaguntza jaso ez dutenak, eta aurten aurkeztu beharko dituzte berriro beren dirulaguntza eskaerak.

Dirulaguntzak

Larraulgo Udalak 4.200.000 pezeta inguruko dirulaguntza jarri du kanpaina horretan; etxe bakoitzeko



Baserriak txukun txukun gelditu dira

HILERO HOGEI GUTXIAGO MASKATUZ GERO ...



140.000 pezeta, hain zuzen ere. Dirulaguntza horren %75a 1996. urtean banatu zaie herritarrei, eta geratzen den %25a 1997. urteko hasieran banatuko dute. Herritarrek, guztira, 12 milioi pezeta gastatu dituzte etxeak txukuntzen.

Epaimahaia eta sariak

Etxe edota baserririk txukun eta apainerari saria emateko epaimahaia osatu dute: Carlos Riverok Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako turismo delegatuak; Xabier Arrutik, mendi nekazaritza eta 5B planeko arduradunak, eta Jakoba Recondok lorezaintzan adituak. Hiru adituen iritziz, Larrunbide Etxeberri baserria izan da etxerik apainena, 100.000 pezeta-tako saria jaso du. Bigarren postuan Sorarrain Usandizaga eta Añezabal Haundi baserriak gelditu dira.

Proiektu ugari

Etxe eta baserrien apainketa egitea, herriko plazaren ingurua urbanizatzea, uraren depurazioa egitea, eta beste hainbat proiektu Antton Amonarritz alkate zeneko garaiko egitasmoak dira. Eta egun, oraingoz alkatea den Jon Tejeria proiektu hauek aurrera eramaten ari da udaleko ordezkari eta langileekin batera.

GIZARTE LAGUNTZAILE BERRIA

Gizarte laguntzailea izan Miren Lizeaga ama izan delako Milagros Olaizola zumaitarra izango da bere ordezkoko gizarte laguntzaile berria urtebetetik gora. Lan horretan bi aste bakarrik daramatzen arren, oso gustura ari da lanean.

Lehen ere egin izan du gizarte laguntzaile gisa lan Milagros Olaizolak. Usurbilen hiru urtetik gora igaro ditu lanean, eta orain, urtebetetz behinik behin Andoainen ariko da lan berean. Andoain herri nahikoa handia denez, lan egiteko modua ezberdina izango dela aitortu digu, baina era berean, gauza berriak ezagutzeko gogoia duela azpimarratu digu: "Nire lana jendecaren eskaerak jaso, balorazioa egin, eta arazoak konpontzen saiatzea izango da. Eskatzailearen arazoaren arabera, zenbait lan nik burutu beharko ditut eta beste batzuk berriz, beste zerbitzuetako arduradunekin batera egin beharko ditut".

Udaltzain postua

Udaltzain postu bat betetzeko egin zen lehiaketara hogeita hamabi pertsona aurkeztu ziren. Azterketa teorikoa, praktikoa, eta proba fisikoen ondoren, puntu gehien lortzen



Milagros Olaizola

dituenak lortuko du lanpostu finko hori. Sendagilearen azterketa egin ondoren hasiko da udaltzain berria lanean.

Puntu gehien lortu dituzten hurrengo bi lagunek berriz, udaltzain laguntzaile postuak beteko dituzte; udaltzainen oporraldiak eta bajak betetzeko kontratatuko dituzte bi laguntzaile horiek.

AEROBIK MARATOIA HERRIAN



Buruntzaldean egingo duten lehenengoa

Buruntzaldeko mankomunitateak antolaturiko aerobik maratoiaren 12an, arratsaldean, egingo dute. Bertan hamasei urtetik gorago edonork har dezake parte. Aerobikaren iharduera bultzatzea eta gainerakoei ikuskizun atsegina eskaintzea dira maratoiaren helburuak.

Buruntzaldeko mankomunitateko kiroldegiek antolatzen duten lehendabiziko aerobik herri maratoiaren da. Datozen urteetan, Buruntzaldeko mankomunitateko beste kiroldegietan maratoi hau antolatzeko asmoa dutela azaldu digute kiroldegiko arduradunek. Aerobik maratoi honetan parte hartzeko Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta edota Usurbilgo kiroldegietan eman behar da izena eta apirilaren 9a da izena emateko azken eguna. Kirol-zapati-

lak eta jantzi egokiak behar dira, eta jantzi horiek ez dute oztopo izan behar besoen eta zangoen mugimenduak ondo ikusteko.

Maratoiaren hiru zatiak

Maratoi horrek hiru zati izango ditu, 3 ordutako saioa izango da eta ordu bakoitza maratoiaren zati bat izango da. Lehenengo orduan berotzeko eta hasierako ariketak egingo dira. Lehen atal horretan ez dute inor kaleratuko, eta beraz, guztiak hartuko dute parte. Bigarren orduan jada ezinean ari diren partaideak eliminatuko dira, eta azkenik, hirugarren orduan, teknika eta estiloa edukiko dira kontutan partaideak baztertzeko orduan. Aerobik maratoiaren arduradunetako bat den Ixiar Olanok azaldu digunez, garrantzitsuen lagun kopuru handiak parte hartzea da. "Aerobika emakumezkoen kirola dela uste dute askok, baina beste herrietan gizonezkoak ere parte hartzen dute, eta beraz, gizonezkoen parte hartzea bultzatu nahi dugu".

Azkenik, aerobik herri maratoi horretan parte hartzeko 200 pezeta ordaindu beharko dituzte Buruntzako mankomunitateko ikastaroetan parte hartzen dutenek, eta gainerako guztiak 750 pezeta.



JOSEBA
Altzariak
Kaletsiki, 6 Fax - Telef. 59 07 61
ANDOAIN



ZUBI
AUTO ESKOLA
Ernio bidea, 2 - 69 06 93 - ZIZURKII.



M Talleres
Mendi S. L.
Burdinezko piezen egintza,
planuen araberakoa.
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.
Mekanizazioa.
Urnietako bidea, z/g. ANDOAIN
69 04 52 - 59 05 08

HERRIKO HISTORIA IKERTZEKO DIRULAGUNTZAK

Helburua herriaren oroimen historikoa berpiztea eta hedatzea

Andoaingo historiari buruzko ikerketak bultzatzeko dirulaguntza ematen du Andoaingo Udalak. Dirulaguntzaren eskaera eta ikerketarako gaia 1997ko maiatzaren 30an aurkeztu behar dira, eta ikerketa lana berriz, 1998ko martxoaren 31a baino lehenago.



Laguntza hori jaso ahal izateko herriari buruzko ikerketa orijinala eta argitaratu gabea aurkeztu beharko da. Hala ere, egilearen esku dago ikerketa gaia eta garaia aukeratzea. Ikerketaren oinarritzko ildoak, jarraituko duen metodologia, informazio iturriak eta lana zein hizkuntzetan aurkeztuko den azaldu behar dira. Horrez gain, eskatzailearen lan egoera zein den eta bere ikasketa tituluak nahiz gainerako ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Lanaren baldintzak eta dirulaguntzak

Behin eskaerak aurkeztuta, udalak horietako batzuk onartu eta dirulaguntza emango die. Lan bakoitzari emango dioten dirulaguntza 175.000 pezetakoa izango da, eta lana euskaraz egiten bada, 75.000 pezeta gehiago emango diote. Lanak paperean eta euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira Andoaingo Udal Artxibategian, 1998ko martxoaren azken eguna baino lehen.

Lana gutxienez 35 eta gehienez 70 orrialdetakoa izango da, baita hiru hizkuntzetan eginiako 15 lerroko laburpena ere.

Ikerketa lanaren orijinala Andoaingo Udal Artxibategian gordeko da, eta udalaren esku dago lana zein hizkuntzetan eta bakarka nahiz beste lan batzuekin batera argitaratzea. Ikerketa lanak "Leizaur" aldizkarian argitaratuko dira lehenengo aldiz.

GREBA OROKORRAREN INGURUKO TIRABIRAK

Martxoaren 7rako Herri Batasunak deitu zuen greba orokorrak zer esan handia ekarri du herritarren artean. EAJ-PNVk greba ez jarraitzeko esan zien herritarrei, eta beraz, Maxen Zinkunegi zinegotzi jeltzaleak Minikost liburudenda ireki egin zuen. Gauzak horrela, dendara aurpegia estalita zuten hiru ezezagun sartu ziren greba egunean, eta dendaren erakuslebioan eta dendaren barruko apaletan pintura horia eta gorria isuri zuten. Hori dela eta, ekintza hori salatzeke, EAJ-PNVk komunikatu bat kaleratu zuen. Agiri horretan ekintza horren egile gisa herriko gazte bat salatzen zuten. Herri Bata-



HB-ren Prentsaurrekoa

suneko Petrikorena zinegotziak salaketa hori gezurra dela eta Alternatiba Demokratikoa isilarazteko asmoarekin egina izan dela azaldu zuen prentsaurrean. Enfrentamendua bilatzen ari dela leporatu dio HBk EAJ-PNVri, eta horren aurrean HBk neurriak hartuko dituela adierazi zuen. Era berean, EAJ-PNVk ekintza horren egilezat salatu zuen Ixaka Perezek, salaketa hori zuzentzeko eskatu zion EAJ-PNVri. Alderdi jeltzaleak berriz, herritarren gehiengoak indarkeriazko neurri horiek ez dituela onartzen, eta beraz, gutxiengo baten mehatxuen aurrean ez makurtzeko deia egin du.



Minikost liburudenda pintura botoak bota ondoren

101 URTE ATEAK ZABALIK

Herritarrek "Perikoren denda" izenarekin ezagutzen dute

Egun, Manoli Orbegozok egiten du lan denda horretan, baina Manoliren aitona izan zen, 1896. urtean, denda ireki zuena. Ordutik hona, denda horrek, herrian gertatu diren aldaketak ezagutu eta herritarren belaunaldi ezberdinen joanetorriak ikusi ditu.

Egun, Manoli Orbegozok egiten du lan denda horretan, baina Manoliren aitona izan zen, 1896. urtean, denda ireki zuena. Ordutik hona, denda horrek, herrian gertatu diren aldaketak ezagutu eta herritarren belaunaldi ezberdinen joanetorriak ikusi ditu.

Beti familia izan da denda horretan ibili dena, baina orain Manoliren jubilazioa dela eta, etorkizunean zer gertatuko den ez daki. "Seguruenik lana utzi egingo dut aurren. Seme-alabek badute lana, eta beraz, denda errentan uzteko asmotan nabil".

Elikagai denda

Egun, gehienbat, janaridenda da. Drogeria ere izan arren, jangaiak dira gehien saltzen dituztenak. Lehen, ordea, denetatik saltzen zutela azaldu digu Manolik. "Lehen, ez zegoen okidegirik herrian, eta guk Billabonatik ekartzen genuen ogia dendara. Horrezaz gain, beste edozein gauza ere saltzen genuen, alpargatak adibidez. Andoingo baserritarrek eta herriko edozein txoko urrutetik zetozenak ziren gure bezeroak".



Egun, ordea, gauzak asko aldatu dira. Denda handien kompetentzia handia den arren, beren bezeroak mantentzea lortu dute azken urte hauetan. Bestalde, Manolik gogoan ditu "errazionamenduaren urteak": "Urte horietan, errazionamendua zela eta, bezero kopurua jaitsi egin zen. Andoingo denda ezberdinetan banatu zituzten errazionamendu-libururka horiek, eta beraz, jendea denda ezberdinetara joaten zen erosketak egitera. Urte gogorak izan ziren horiek".

Egun, hainbeste urtetan andoindarren zerbitzura egon ondoren, honako hau azpimarratu nahi izan du Manolik: "Eskerrak eman nahi dizkiot Andoingo herriari. Pozik egon naiz izan ditudan bezeroengatik".


OHARRA

Aiurriren 53. zenbakian argitaratutako kalejira taldeari buruzko albistea zuzendu nahian, zera adierazi nahi dugu: kalejira talde baten aurkezpena izan beharrean euskal presoen aldeko gazte ekimena izeneko talde berriaren aur-

kezpena izan zela. Aurkezpenean, herriko kaleetan zehar kalejira moduan ibili ondoren, Goikoplazan presoena era salatzeke parodia egin zuten taldea aurkeztearekin batera.



ILLUMBE, S.L.
Kalejira Taldearen



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 **TOLOSA**
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 **ANDOAIN**

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROIAK
EDURNE**

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

BI MILA ZUHAITZ BERRI EGIEDERREN

**Eskolako haurrek 64 zuhaitz landatu dituzte
Zuhaitz egunean**

*Duela hiru urte pinua atera zuten
Egieder basoa landatu dituzte
bi mila zuhaitz berri. Pagoak eta haritzak
dira zuhaitz hauek guztiak, eta gehienak*

*udal langileek jarri dituzten arren,
eskolako haurrek ere landatu dituzte
zuhaitz batzuk hil hasieran
ospatu duten Zuhaitz egunean.*

12.260 m²-tik gorakoa da Egieder basoa. Hiru urte dira bertatik pinua kendu zutela, eta pago nahiz haritz landare berriak jartzeko, lau egunetan aritu ziren hamarren bat lagun basoa garbitzen. Zuhaitzak landatzeko zuloak egin ondoren, bi mila zuhaitz inguru landatu zituzten ondoren udal langileek. Gipuzkoako Diputazioak Asteasuko Udalari eman dion dirulaguntzari esker egin dituzte basoa garbitzeko eta zuhaitz berrientzako zuloak egiteko lanak. Hala ere, lan guztiak ez ditu Diputazioak ordaindu, Diputazioak eskaintzen dituen landareak baino zuhaitz handiagoak landatu baitituzte Asteasun. Udalak ordaindu ditu jarri dituzten zuhaitz guztiak. Guztira 637.220 pezetako kostua izan du baso berri jartzeak.

Zuhaitz eguna

Urtero egiten duten moduan, aurten ere Zuhaitz eguna antolatu dute Pello Errota ikastetxecko ikasle eta irakasleek. Iaz gaztaina landatu zuten, eta aurten berriz, 64 pago eta haritz landare landatu dituzte.



Zabala
Ordukari Bitxitegia



RACER
LOTUS
TISSOT
SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI



*ogi berezi eta
artesanak
...
etxerainoko
zerbitzua*

OKINDEGIA, S.L.
Lizarratxoa, 32 / Elizmendi auzoa.
20159 ASTEASU ☎ 683292 - 691896

OGI • GOXO



• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
• TEILAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

GOROSTI
HERBORISTERIA

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona

EUSKARAZ IDAZTEKO LEHIAKETAK

**-Eskolako haurrentzako bertso-ipuina lehiaketa
-Amodiozko gutunen lehiaketa gazteentzat**

Billabonako euskara zerbitzuak bi lehiaketa antolatu ditu herriko haur eta gazteak euskaraz idaztera bultzatzeko. Bertso eta ipuin lehiaketa antolatzen duten bosgarren aldia da aurtengoa, eta amodiozko gutunen lehiaketa bigarren aldiz antolatzen dute udalak eta Amabila euskara taldeak. Beraz, idaztea atsegin baldin baduzu eta sari eder bat jaso nahi izanez gero, has zaitez amodiozko hitzak nahiz beste gai baten inguruko bertsoak eta ipuinak asmatzen.



Bertso eta ipuin lehiaketa herrikoentzat

Bertso eta ipuin lehiaketan lehen hezkuntzako 2. eta 3. zikloko haurrek eta DBHko lehenengo zikloko ikasleek har dezakete parte. Billabonakoak edota herriko ikastetxeetan ikasten ari diren haurrek izan behar dute guztiak, eta gaztetxoek nahi duten neurriko ipuina eta bertsoa egin behar duten bitartean, DBHko ikasleek bi eta lau orrialde arteko ipuina egin behar dute. Gainera, nagusienek egin behar dituzten bertsoak lautik sei ahapaldi bitartekoak izango dira. Apirilaren 30a izango da lanak aurkezteko azken eguna, eta lanak ezizenez sinatuko dira.



Egilearen benetako izena kartazal baten barruan aurkeztu behar da, eta kartazalaren kanpokaldean lanaren eta egilearen ezizena jarriko dira. Irabazleak maiatzean aukeratuko dira, baita sariak banatu ere. Lehenengo postua lortzen dutenek argazki kamara irabaziko dute; bigarrenengo txandal bat, eta hirugarren postua lortzen dutenek aldiz, eskolako materiala.

Amodiozko kontuak

Hamabost-hamalau urtetik gorako edonork har dezake parte lehiaketa honetan. Gehienez, bi orrialdeko eskutitza idatzi behar dute, eta lanean lema bat jarri behar dute. Egilearen benetako datuak kartazal itxi batean aurkeztu behar dira, eta sobreak kanpokaldean egileak erabili duen lema jarri behar da. Lanak maiatzaren 7a baino lehenago aurkeztu behar dira Billabonako Udaleko euskara zerbitzuan, eta sariak ekainaren amaieran emango dituzte. Lehenengo saria 40.000 pezetakoa da, eta bigarrena 25.000 pezetakoa. Billabonako eskutitzik onenari 20.000 pezeta emango diote.

ARANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea

☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur


KIROLDEGIKO LANEN BERRIKUSKETA

Enpresa bat kontratatuko dute kiroldegiko lanak ikuskatzeko

Datorren urtearen hasieran kiroldegi berri bat izango dugu herrian. Orain, kiroldegiko lanen hirugarren fasea egiten ari da Murias enpresa, eta azken fasea ere berak egingo du. Baina lanak ongi egiten ari direla ziurtatzeko, lanak berrikusteko enpresa bat kontratatuko du udalak; kiroldegiko lanen inguruan aditua den enpresa bat, alegia.

Kiroldegiko lanak berrikusten adituak diren hiru enpresei luzatu die Billabonako Udalak herriko kiroldegiko lanak ikuskatzeko proposamena. Lanak bukatu arte aritu beharko du enpresa berri horietako batek ikuskatzaile gisa lanetan, kiroldegia ahalik eta txukunena egiteko.

Lan hori burutzeko eskaera apirilaren 4a baino lehenago egin beharko dute enpresek, eta eskaera orria bete-tzeaz gain, ziurtagiri batzuk aurkeztu beharko dituzte udal-txean data hori baino lehenago.



Lanak poliki poliki ari dira egiten

HILERO BI PAKETE GUTXIAGO JANDA ...



Apirilaren zazpian egingo duten udal batzarrean auke-ratuko dute lan hori egiteko enpresa berria.

Murias enpresa ados

Murias enpresa ados dago bere lanak berrikusiko dituen enpresa berri bat lanetan hasiko delako. Izan ere, kiroldegiez gain, obra ugari izan ohi du eskuartean Murias enpresak. Beraz, kiroldegien funtzionamentuari buruz aditua den enpresa batek lanak ikuskatzeak kiroldegia ongi egingo dela ziurtatuko du.

Goiko
OPTIKA

eguztako betaurrekotan aukera zabala

Arteta z/g
20140 ANDOAIN
☎ 590955

VAC VAC **HOL-ATZ** 

VACSOL - WR⁺ TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

ELGETA, 1996KO BETERRIKO LIBURUA

Ekitaldi jendetsu batean eman zen ezagutzera epaimahaiaren erabakia

Larramendi Kultur Bazkunak antolatutako Beterriko Liburua literatur aipamenaren helburua, irakurleek euskal literaturan urtean zehar plazara emandako lanik gogokoenaren aipamena egitea izan da. Ekitaldian argi erakutsi zen moduan, Beterri-Aiztondoko herritarrek literaturgintzarako interesik badute, horren adierazgarri, ekitaldira azaldu zen lagun kopurua izan zelarik.

Beterriko liburua aipamen literarioko lehen edizioa herritarren artean oraindik guztiz sozializatu ez den arren, jasotako erantzunekin gustura zegoela adierazi zuen Larramendi Bazkuneko lehendakaria den Jon Unanue: "Txartel kopuru dexentea jaso dugun arren, proposamenak obra askoren artean oso banaturik egin dizkigute, eta ez da bakar bar nabarmen gailendu. Horren aurrean, eta oinarrietan aurrikusiari jarraiki, epaimahaiak, proposamen horiek aintzatzat izanik, bere gain hartu du azken erabakia". Hitz horien ondoren, Foru aldundiako kultura departamenduaren izenean Joseba Erkizia andoaindarrak hitzegin zuen. "Foru Aldundiak begi onez ikusten ditu horrelako ekintzak. Egun, euskaraz argitaratzen den liburu produkzioaren eskaintza zabala da, baina, oraindik bada ezberdintasunik argitaratzen den liburu kantitatea eta jendeak irakurtzen duen liburu kopuruaren artean". Zizurkilgo alkate den Juanjo Aranburuk ere bere iritzia azaldu zuen literatur aipamenari buruz: "gure eskualdeko herriei dimentsio kultural eta bizitza berezkoa emango dieten



Juanjo Aranburu Zizurkilgo alkatea eta Jon Unanue, Joxean Agirre zoriontzen

gisa honetako ekintzak behar ditugu. Aiurri aldizkariarekin hasitako biderei jarraia emateari garrantzitsua deritzot".

Azken erabakia bertsoetan

Jokin Sorozabal eta Jesus Maria Irazu izan ziren lehen edizio Beterriko liburuaren erabakia bertsoetan azaldu zutenak. Saritutako obra, "Elgeta" trikitilari ospetsua eta Joxean Agirre idazlea izan ziren euren bertsoen ardatz nagusiak. Horrela, istorio gogorra xamurtasunez kontatu izana, nobela autobiografikoa izatea edota idazleak bertsolarien kontuak ondo ezagutzen zituela izan ziren bertsolariak azalduko zenbait puntu.

Beterriko liburua 1997

Aipamen literario horren lehen edizio horri amaiera eman bezain pronto 1997ko Beterriko liburua martxan jarriko da. Horrela, 1997an literaturgintzako oinarriak eta xehetasunak laister emango dira ezagutzera Aiurri aldizkarian.

PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO BARAUALDIA

Hilaren hasieran hiru egunetako baraualdia egin zuten udaletxean 20 zizurkildarrek Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta. Alternatiba demokratikoari buruzko eztabaida, Tomas Karrera preso ohiaren solasaldia eta enkartelada egin zuten, besteak beste, bertan bildutako herritarrek. Bestalde, presoek eskubideak betetzeko herrian egiten diren ekintzetan parte hartzea eta presoek elkartasuna adieraztea gonbidatu zituzten zizurkildar guztiak.



Enkartelada batekin amaitu zuten baraualdia

minikost

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

Aduna

EMAKUME BASERRITARREN ESKUBIDEAK

EBEL, Emakume Baserritarren Elkartea, hitzaldiak ematen ari da nekazal giroko herrietan

EBEL elkartea emakume baserritarren egoera eta beren eskubideei buruzko hitzaldi ugari ematen ari da. Herritar guztiek parte hartzen duten hitzaldietaz gain, emakume bakoitzak bere egoeraz hitz

egiteko aukera izango du EBELeko kideekin, hori egiteko jarri duten egunetan. Emakume baserritarrak langileak direla eta eskubide batzuk dituztela informatzeko eta aldarrikatzeko dira hitzaldi horiek guztiak.

Emakume gazteak baserrietara jo dezaten emakume baserritarren lan egoera hobetzeko neurriak bultzatu nahi ditu EBELek. Horretarako, lehenik eta behin, egungo emakume baserritarren lan eta bizitza egoera aztertu dute, zer aldatu behar den eta nola jakiteko. Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko emakume baserritarren %35ak bakarrik dauka aseguru soziala, eta beraz, emakume gehienek ezin dute gaixotasun baxarik hartu edota jubilaziorik izan. Bestalde, baserrian gizonezkoak baino emakumezko gehiagok lan egin arren, oso emakume gutxi dira baserriko titularitatea dutenak: %27,5a bakarrik. Ondorioz, emakumeek ere titularitatea edukitzeko eskubidea dutela aldarrikatzen du EBELek; baserriaren titularitatea konpartitzekoa, behinik behin. Horrela, emakumeek baserrian egiten duten lana errekonozitu egingo litzateke.

Baserriaren etorkizuna gazteengan

Baserria eskualdatzea ahalik eta egokien eman behar dela uste du EBELek. Baserriaren lurra ahalik eta

gutxien zatitu behar direla uste dute, baserriarekin aurrera jarraitu behar duen gazteak lana egiteko aukera onak eduki ditzan. Era berean, baserri bizitzera doan familia berriak

bere espazio propioa eduki behar duela diote, elkarlagunduz baina bakoitzak bere txokoa edukiz gero hobeto moldatzen baitira baserri berean bizi diren bi familiak.



ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA!!

Kaleberria 22

Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

FERRETERIA

GOROSTIDI

BURDINDEGIA

SUKALDERAKO TRESNERIA

Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN

Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

BETERRI-AIZTONDO KORRIKA



Korrika txikian ume askok hartu zuten parte



Asteasun, goizean goiz pasa zen korrika



Billabonan, gaupasazale askok hartu zuten parte



Lekukoa eskutik eskura (Zizurkil)



Kulturaren munduko jende asko Adunan



Ordu txikietan korri egin zuten gaztetxoak



Udaleko euskararen normalkuntzarako batzordea korrika



Eguna argitu arte korrikan



Presoen aldeko errebindikazioak korrikan



Larramendi bazkunakoek ere korri egin zuten

Andoain

JAVIER PEREZ GUERRAS: HOMEOPATIAK IRAUTEN BADU EMAITZA ONAK LORTU DIRELAKO IZANGO DA



Javier Pérez Guerras, Homeopata

Aiurri: Zein ezberdintasun dago medikuntza konbentzionala eta homeopatiaren artean?

Javier Perez Guerras: Diferentziarik handiena gaixotasuna tratatzeko eran dago. Medikuntza konbentzionalak gaixotasuna desagertarazteko sendagaiak errezetatzen ditu, aldiz homeopatiak gaixotasun hori gorpuzak "zerbait" adierazteko duen modua dela uste du. Beraz, butsik gaixotasuna moztu baino, sorreraren arrazoiak bilatu behar dira gaixotasuna eta hori eragin duena sendatzeko. Laburtzeko, gaixotasuna bere aurkakoa den medikamentu batekin sendatzen baino, gaixotasuna bere kide diren elementuen bidez sendatzen saiatzen gara.

Ai: Jendeak bereizten al ditu konbentzionalak ez diren medikuntza mota ezberdinak?

J.P.G.: Normalean jendeak bereiz-

ten ditu medikuntza ez konbentzional mota ezberdinak baina bada horren inguruan asko zabaldu den uste falsu asko. Medikuntza konbentzionala ez den beste terapia mota guztiak (naturista, akupuntura, petrikiloa) zaku berean sartzen ditu jendeak, eta hori ez da borrela. Horrezaz gain, oraindik bada homeopatia belarren bidez sendatzen dela uste duenik.

Ai: Zerk egiten du homeopatia bain zientzia zaila eta ezberdina?

J.P.G.: Homeopatiaren ezaugarriarik nagusia gaixotasuna bana-koaren baitan tratatzean datza. Horrela, burukomina duten guztiek ez dituzte osabide berak bete behar, edota gaixotasun ezberdina dutenak sendagai bera hartzea gerta daiteke. Gaixotasun borren arrazoa, pertsonaren izaera eta beste

zenbait ezaugarritan finkatutako tratamendua jasotzen du homeopatiengana doan edonork. Izan ere, gaixotasun bera beti ez baita arrazoi edota faktore berdinegatik sortzen, eta beraz, ezin dira horiek guztiak berdin sendatu. Horrela, homeopatian 5.000 sendagai ezberdin inguru dugu gutxi gorabehera, baina erabilienak 500 inguru dira.

"Homeopatiak pertsona gaixoak tratatzen ditu, gaixotasunak baino"

Ai: Zein tratamendu edota sendagai mota errezetatzen dituzu?

J.P.G.: Sendagaien artean bereizketa bat egin behar da: dosi txikiko granuloak dira, jendeak gehien eza gutzen dituen sendagaiak. Horrezaz gain, badira medikuntza konbentzionalan erabiltzen diren beste produktu batzuk sendagai homeopatak ere badirenak, jarabeak, supositoriak eta antzekoak.

Granulozko sendagai horiek, ordea, beren dosifikazioaren arabera, bata bestetik oso ezberdinak dira. Sendagai berak, duen dosifikazioaren arabera, aplikazio ezberdin ugari izango du. Horrela, sendagai horiek daramatzan zenbakien bidez, zenbaki baxua duten sendagaiak arazo fisiko edota leku jakin bat tratatzeko balio dutela dakigu. Zenbaki altua dutenak berriz, zerbait sakonagoa sendatzeko dira.

Ai: Zein gaixotasun edota arazorengatik joan obi da jendea zure kontsultara?

J.P.G.: Jende asko eta mota ugari-lakoa etortzen zait. Gizonezkoak, emakumezkoak..., haurrak ere etortzen dira. Beldurra, alergiak, azaleko arazoak, erreuma edota beste hainbat arazorengatik etorri obi da jendea. Ondoren, bere arazoak ikertzen hasi eta horiek baino arazo gehiago dituela ikusi izan dut askotan. Baina garrantzitsuena gaixotasunaren kausari irtenbidea bilatzea da. Hori bai, homeopatarengana doan gaixoa medikuntza konbentzionalak irtenbiderik bilatu ez diona, edota homeopatiarekin gustura dauden lagunek esanda datorrena izan obi da.

Ai: Esan al daiteke egun homeopatia modan dagoela?

J.P.G.: Bai, horrelako zerbait gertatzen ari da. Homeopatiak lortu dituen emaitza onak direla eta, jendeak homeopatian sinesten hasia dela esan daiteke, baina homeopatia ez da berria. Duela gutxi bere sorreraren 200. urteurrena ospatu dugu, eta beraz, ez da atzo sortutakoa. Gainera, datu bitxi gisa, mende basteran, ospitale homeopata batzuk bazeuden. Guda zibilean erre egin ziren, eta zenbait homeopatek atzerriara egin zuten ibes.


Ai: Gerta al daiteke homeopatiak gaixotasun jakin bat ezin sendatzea?

HILEAN HAMAR GOZOKI GUTXIAGO ZUPATUZ GERO...



J.P.G.: Lehen lehenik homeopatiak miraririk ez duela egiten azaldu behar dut. Gaixo batek sendagai asko hartu baditu, adibidez, ezin da berebala emaitzarik ikusi. Tratamendua eragozten duten oztopoak gaitu eta gorputza barrutik garbitu ondoren basiko da gaixoa homeopatiaren ondorioak nabaritzen. Hala ere, homeopaten artean esaten dugun

bezala, sendaezinaren kontzeptuak garrantzi handia du. Gaixoak tratamenduari erantzuteko duen abalmentean dago gakoa. Pertsonaren bizi-indarra abula baldin bada edota gaixotasunari erantzuteko abalmentik ez badu, pertsona hori ezin sendatuko dituzten beste zenbait gaixo berriz, senda daitezke bera horretarako prest baldin badago.



SAMUEL HAHNEMANN, Homeopatiaren aita.

Christian Federico Samuel Hahnemann 1755. urteko apirilaren 10an jaio zen Meisse herrian (Sajola). Hogei urterekin Leipzigera joan zen Medikuntza ikasketak egitera. 1777. urtean berak, Viennara joan zen Quarin izeneko mediku ospetsuarekin ikastera. 1779. urtean Alemaniara itzultzea bi urtetara doktoratu zen. 1784. urtean argitaratu zuten bere lehen liburua, Baitan, gaur hartako medikuntza ikasketak egiten zirekin. 1790. urtean, "Materia medikoa" liburuak itzultzen ari zela eta bere seme-arako bati gaixonnetan arazo sendagatarrak gabe sendatu zela ikustean sartu zen homeopatiaren munduan. Pertsona osasuntsuengan erabiltzeko eragutu zituen erremedio homeopatiakoaren abantailak. Bere bizitzaren azken urteetan leku askotan gaixorik joaten ziren berarengana. 1853. urteko urtarrilaren 2an hil zen laurogei hiru urteekin.

TXIRRINDULARITZA: AFIZIOA ETA OFIZIOA

Xabier Usabiagarekin solasean



28 urte ditu Usabiagak

Hasi da jada txirrindularitza profesionalaren eta afizionatuaren aurtengo egutegia. Profesionaletan egun gutxi-tako nahiz askotako bira eta lasterketak izango dituzte hemendik aurrera. Afizionatuek berriz, asteburu lasterketa bat baino gehiago. Lasterketa horiek guztiak jarraitu, disfrutatu eta horien berri emango duenik ere izango da gure artean. Txirrindularitza profesional ibilia, txirrindularitza lasterketen gorabeherak irriaren bidez azaltzen dizkigu orain Xabier Usabiaga asteasuarrak.

Oso lanpetuta dabilen gizona dugu Xabier Usabiaga. Astearte eta asteburuetan irra-

tian egiten du lan, asteazkenetan berriz, txirrindularitzari buruz idazteko tartetxo bat izaten du Euskaldunon Egunkarian. Txirrindularitza profesionaleko lasterketak hedabideen bitartez jarraitzen ditu, eta afizionatuenak berriz, *in situ*. Txirrindularitza da bere bizitza. Hamazortzi urterekin lanean hastea edota txirrindularitza serio hartzea erabaki behar izan zuen, eta txirrindularitzan jarraitzea erabaki zuen. 1989-1990. denboraldian profesional mailara pasa zen Estatu osoko beste hamar gazterekin batera eta Clas taldera sartu zen. Hiru urtetako kontratua izan arren, hirugarren urtean, osasun arazo bat medio, txirrindularitza profesionala utzi egin behar izan zuen. Golpe gogorra izan zen hori. Madrilen hilabete eritexean egon ondoren etxera bueltatu eta segituan irratian aditu moduan lan egiteko aukera jaso zuen Euskadi Irratitik. Ordutik hona bira garrantzitsuenetan, tourean, eta Espainiako nahiz

Euskal Herriko itzultietako lasterketetan aditu gisa aritzen da lanean irratian. Afizionatuaren lasterketetan berriz, kazetari lanak burutzen ditu. Aditu lan horietan hasi ez balitz zertan ihardungo zukeen galdetzerakoan txirrindularitzarekin zerikusia duen zerbaitean arituko zela esan digu: "Edozer gauzari helduko nion, txirrindularitzan egon naizen urteetan saiatzen, borrokatzen eta ez etsitzen ikasi bainuen".

Gaztetan ikastea baino kirola egitea nahiago izan zuen, eta beraz, ez du goi mailako ikasketarik. "Kazetaritza edota euskal filologia ikastea gustatuko litzaidake, baina orain ez dut denborarik". Ikasketa horiek ez izan arren, inork ez du zalantzan jartzen bere lan periodistikoa. Oraingoan, ez du programa propiorik, baina etorkizunean izango du beharbada. Hala ere, telebistan lan egiteak ez dio batera inbidiarik ematen: "Jende askok uste ohi du kazetari onenak telebistan daudela, baina hori ez da egia".

Aiurri: Zein desberdintasun dago txirrindularitza profesionala eta afizionatuaren artean?

Xabier Usabiaga: Diferentziarik handiena diru kontuan dago. Egun, afizionatuak guttiz profesionalizatuta daude. Profesionalek bezala entrenatzen edota funtzionatzen dute, eta beraz, soldata kopurua da bi txirrindulari horiek desberdintzen dituen. Hala ere, eta zorionez, bada txirrindulari afizionaturik bizikletan ibiltzeaz gain ikasi edota lanik egiten duenik. Izan ere, eta hori esatea gogorra bada ere, gutxi bartzuk bakarrik izango dira profesionaltara pasako direnak.

Ai: Zein funtzio betetzen dute txirrindulari gazte horien gurasok?


X.U.: Esango dudanarekin bat baino gehiago haserretu daiteke, baina zenbaitetan gurasoen eragina handiegia, eta txarra izaten da. Gurasoek dituzten asmoak beren semeengan jartzen dituzte, eta ez dira oso errealistak izaten. Nire ustez horren arrazoa ezjakintasuna izan ohi da; txirrindularitzari buruzko ezjakintasunak semeak ahal dutena baino gehiago ematera behartzen ditu.

Ai: Zein ezaugarri behar ditu txirrindulari gazte batek profesionalerara pasa ahal izateko?

X.U.: Gazte horrek kalitate fisiko batzuk eduki behar ditu. Horren adibidea dugu entrenamendu eta prestakuntza bera jaso duten bi gazteek ez dituztela emaitza berak lortzen. Beraz, desberdintasun horiek norberaren genetara eta gorpuzkerara aurkitu behar dira.

Ai: Indurain txirrindularitza joan izanak zein eragin izango du zaletuen artean?

X.U.: Egia da Indurainek eragin handia izan duela zaletuen artean, baina benetako zaletua bada, eta nahiz eta Indurain joateak pena eman, txirrindularitzarekiko zaletasuna ez du galduko. Indurain txirrindulari ona izan da, baina bere akatsak ere bazituen. Momentu txarretan garaipenik lortu ez duenean erru guztia eguraldiari botatzea Indurain gutxiestea dela iruditzen zait. Txirrindulari on batek oztopo guztiak gainditzen ditu, beraz, momentu txar horietan Indurain ez zegoen fisikoki bere momenturik onenean.



“Txirrindularitzaren historia bildu duen lana egiten ari naiz”

Ai: Irratiko lanaz gain, baduzu txirrindularitzaren historiari buruz egindako lan bat, ezta?

X.U.: Bai, Belgikara joan nintzen txirrindularitzari buruzko datuak jasotzera, eta bueltan ordenadorea erosi eta programa informatiko bat egiten hasi nintzen. Bi urteren ondoren, 1898. urtetik gaur egunera bitarteko txirrindularitzaren historia osoa biltzen saiatu naiz. Mundu guztiko txapelketen jarraipena egiteaz gain, 8.000-10.000 txirrindulariei buruzko datu bilketa egin dut. Bilketa lan hori egin ondoren, orain, datu berriak sartzeari baino ez zait falta.

Ai: Zein aholku emango zenioke txirrindularitzan dabilzanezi edo gustuko dutenci?

X.U.: Lehen lehenik txirrindularitza gustukoa baldin badute disfruta dezatela, eta beraz, ez hartzeko oso serio. Horrezaz gain, txirrindularitza profesionalaren harrobia afizionatuengan dagoela, eta ondorioz, horiek ere gure errespetu eta zaletasuna merezi dutela. Izan ere, benetako zaletuak baldin bagara txirrindularitza maila guztientzat izan behar dugu arreta.

JOSE ANTONIO URBIETA
GARRAIOAK

**URTE OSOAN
SU EGURRRA**
BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAN

Lege Zaharren Enparantza, 4-2
ASTEASU (Gipuzkoa)
☎ 69 26 76 - 69 30 92

KIROL JANTZIAK

Liraura

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47
ANDOAIN

Aduna

HERRIKO ARRAUNLARIAK 1955



Ezkerretik eskuinera: Joakin Urkizu, Jeronimo Yeregi, Joseba Arabaolaza, Franzisko Otegi eta Fermin Belamendia.

Kaletxiki auzoko arraunlariak dira argazkiko host mutikoak. Kaletxikiko Buruntza tabernak babesten zituen, eta bitan lortu zuten ikurrina irabaztea; 1955. urtean eta aurreko urtean, hain zuzen ere. Ordura arte gabarretan egiten zituzten estropadak, eta urte horretatik aurrera beletetan egin zituzten. Garai hartan

Kaletxikiko taldeaz gain, Zumea, Bastero eta Etxeberrieta auzoetako arraun taldeak ere baziren eta elkarren arteko lehia ibiltzen ziren; Santa Krutzetako jaietan egiten zituzten lasterketarik ikusgarrienak. Gerora, ordea, talde profesionalak etortzen hasi ziren. Bitxikeria moduan, aipatu beharrekoa da papera egiten zuten lantegiek isurtzen zuten zikinaren artean ibiltzen zirela arraunlariak arraunean.

Informazioa argazkian ageri den Joseba Arabaolazak eskaini digu.

Isidro Arruti. Inquitexeko lorazaina.



-Noiztik zara Inquitexeko lorazaina?

Duela lau urte hasi nintzen lan honetan. Orduan lanik gabe nengoen, eta beraz, lan hori eskaini zidatenean baiezkoa eman nuen. Baserrian antzeko lanetan banuen esperientzia eta ongi moldatzen naiz lanean.

- Zein da zure lana?

Autonomo gisa ari naiz lanean egunero zortzi orduz. Belarra mozteaz gain, loreak zaintzen ditut; lorategiaren mantenimenduz arduratzen naiz, beraz. Eguraldi txarra egiten duenean berriz, mekaniko gisa egiten dut lan.

- Egunero lorazain gisa lana egiteko adina landare ba al dago?

Oraingoz bai. Lur sail asko dago hemen eta belarra moztzen ez dudanean larrosak, pinuak, tulipanak, eta beste landare gebiago zaindu beharra eguneroko lana da. Izan ere, loreak ongi mantentzeko ezinbestekoa da beti gainean egotea.

- Zenbatero landatzen dituzu loreak?

Urtarrilean kimatzen ditut loreak. Beste hilabetetan lantegiaren ingurunean dauden landare horiek zaintzen ditut. Hala ere, ez dago nire esku zein landare mota landatu. Nire lana loreak zaintzea da.

- Zein ongarri edota produktu erabiltzen dituzu?

Normalean simaurra erabiltzen dut. Gebien erabiltzen den ongarria da. Horrezaz gain, eta oso notzbehinka, hautsa berezi batzuk ere erabiltzen ditut ongarri moduan.

- Lorazaina izan aurretik bestelako lanetan ibili al zara?

Bai, kamarero gisa edota basoan lanean ibilia naiz. Horrezaz gain, Adunako Udalerako ere egin izan dut lan: eskutitzak banatu, inguruaren eta uraren mantenimenduz arduratu, eta abar gebiago. Egun, sagardotegian ere egiten dut lan, bizi abal izateko mugitu beharra baitago. Autonomo gisa lan egiteak baditu bere alde txarrak, eta beraz, lan fijoak ez dudan bitartean lan asko egin behar izaten ditut batera.

- Lorazaina izatea lan gogorra al da?

Ez da lan gogorra. Landareak zaintzeak ez du misteriorik. Landareak zuk nahi duzun itxura izan dezan modu berezi horretan moztu, ureztatu eta zaintzea baino ez da egin behar. Hori bai, belar txarrak kendu eta dena garbi edukitzeko lana egin behar da egunero.

PERTSONAIA EZKUTUA



Hilabete igaro da azken pertsonaia ezkutua nor zen asmatzeko izan duzuen epea. Pertsonaia ezkutua, zuetako gehienek asmatu duzuen bezala, **Mikel Markez** errederiarra da. Pertsonaia ezkutua asmatu eta lehiaketa irabazi duena Adunakoa dugu oraingoan: **Iasone Arrospide**, hain zuzen ere. Hamabi urteko gazte honek orain arteko lehiaketa guztietan hartu du parte, eta azkenean, berari suertatu zaio oparia.

Adunako **Urritza sagardotegiak** bi pertsonentzako afaria eskaini dio Iasoneri oparizat. Beraz, Iasone era bere adiskideak ongi afaldu dezatela esatea baino ez zaigu falta. Besteoi eskerrik asko erantzuteagatik eta ea hurrengo batean gure pertsonaia ezkutua nor den asmatzeko zailtasunik ez duzuen!

SAGARDOTEGIA
JATETXEA

URRITZA



ERAKUSKETAK**ANDOAIN**

Martxoak 21-30: Beñat Arregi andoaindarraren argazkiak izango dira ikusgai Urigain Kultura Etxean.

Apirilak 4-13: Edorta Langararen *Instalazioak* lana ikusgai Urigain Kultura Etxean.

IBIALDIAK**BILLABONA**

Apirilak 6: Aizkardi mendizale elkarteak antolatuta Aizkardiko XXIX. Martxa. Ibilbidea: Billabona, Zarate (Andatza), Oria, Urnieta gaina, Adarra, Leizaran, Billabona. Irteera goizeko 7:00etan, 9 orduko mendi martxa izango da.

ANDOAIN

Martxoak 27-31: Aste Santua Kantabriako mendikatean, Asturia eta Leonen.

MUSIKA

Apirilak 25: Andoaindar musikariak protagonista programaren barruan, Olatz San Sebastian eta Cuarteto de Cuerda Usandizagaren emanaldia.

ZINEA**BILLABONA**

Apirileko programazioa:

De que se rien las mujeres

Space Jam

Michael Collins

Jerry Maguire

Larry Fly'n

ANTZERKIA**ZIZURKIL**

Apirila 11: "Las Chicas de papel" antzezlanaren Abeletxe aterpean. Gaueko 22:30etan.

Haurrentzako antzerkia:

ANDOAIN

Apirilak 20: Kukubiltxo taldearen "Behin bazen" antzezlanaren La Salle antzokian.

BESTE

Apirilak 12: Abeletxe aterpeak antolatuta orientazio ikastaroa.

Apirilak 13: Abeletxe aterpeak antolatuta Adarra-Mandoegi zeharkaldia. Bertako trikuharriak eta harraspilak bisitatuko dira.

MERKATU TXIKIA**ANDOAIN**

Pisua salgai: Aiztondo kalean, 3 logela, sukalde ederra, komuna, trastero txikia etxe barruan eta trastero ederra etxetik kanpo. Dena berrituta dago orain urtebete. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa 12.750.000 pza. Tfno: 590158. (Bazkalgarai edo afalgarai deitu).

Eskiak salgai: 1'40m. eta 1'45m.-koak. 8-10 urte bitarteko haurrentzat. Ikasteko paregabeak. 4.500 pza. pare bakoitzak. Deitu 907-591371 telefonora.

Andregai soinekoa salgai: Uda-berrirako aproposa, mahuka motza (manga). Tfno: 693913.

Altzariak salgai: Egongelako altzariak, estilo modernokoak salgai. 3'20 m.-ko luzera modulotan. Tfno: 693913.

ZIZURKIL

Garajea salgai: Bi solairuko garajea, ofizinetarako aproposa. (Ura eta argia barne). Tfno: 691772.

RIKARDO ARREGI HEMEROTEKA

Euskarazko aldizkari zaharrak biltzen ditugu hemerotekako fondoa osatzeko: Anaitasuna, Zeruko Argia, Argia, Goiz Argi, etab. Informazio gehiago Larramendi Bazkunean (Elixabete Jauregi edo Xabier Lasa), 300733 telefonora deiturik.

KOMIKIA



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



AITZBELTZ

Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxes 30 03 45
ANDOAIN



J. MAIZA S.L.

- Lechioak, Barrukaldea egurrean egiteko aukera.
- Ateak.
- Begira tokiak. (Miradoreak)
- Armairu enpotratuak.

Aluminioa • Poliuretanoa • PVC-a

ERAKUSKETA

Aita Larramendi, 6 behea - Tel.: 300788

TAILERRA

53 Poligonoa - Sorabilla
Tel.: 300424-300788

20140 Andoain
(Gipuzkoa)



**Apirilaren 1etik aurrera lekuz aldatzen gara.
Zuzenbide berria:**

ZUMEA 2 (Ernaitzaren ondoan)
Tel.: 30 06 65 • Fax 59 40 01

**KALITATEA ETA
SEGURTASUNA ZURE
ZERBITZURA**

URPA

AUTOBUSAK

☎ **(908) 77 56 48**

(24 orduak)

☎ **59 38 05**

(Garajea)



Sorabilla auzunea, 53. Pol
ANDOAIN (Gipuzkoa)

AZKAIN Motoak

HONDA
YAMAHA
KAWASAKI
SUZUKI

MOTOAK


MOTUL
FERODO
77Nzi
CASTROL
DAINESE
AGV



- ➔ Motorrerako behar duzun guztia:
 - kaskoak
 - arropak
 - neumatikoak
 - akzesorioak
- ➔ Motore azterketak
- ➔ Mota guztietako Scooterrak
- ➔ Salmenta eta konponketak

B° Ubillos, Pol. 56-N°12 20140 Andoain
Tel./Fax: (943) 591413

EZ DUZU OSASUNIK IRABAZIKO...



BAINA BAI INFORMAZIO HOBEXEAGOA.

Eman ezazu izena AIURRI-n, eta UZTAILETIK AURRERA hamabostean behin jasoko duzu etxean zure herriko berri dakarkizun aldizkaria. UZTAILETIK AURRERA, hilero 200 pta. baino ez du balio, paketa bi patata, hogeitxik eta hamar gozokik adina.

H A R P I D E T Z A T X A R T E L A

URTE OSOKO HARPIDETZA- SARIA 2.000 Pta.

Izen- deiturak -----

Kontu Korrontearen zenbakia:

Helbidea -----

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Kodea ----- Herria -----

Lanbidea ----- Jaiotze data -----

Tokia, data

Etxeko € ----- Laneko € -----

eta Izenpea:

Nora eraman txartel hau: Andoainen, Billabonan eta Asteasun: Gipuzkoa- Donostia Kutzara edo Euskadiko Kutzara. **Gainera, Andoainen:** Aiurrira bertara edo Delgado, Ernaitza, Ikas- Jolas, Minikost, eta Stop liburudendetara. **Billabonan,** Kultur etxe edo euskaltegieta eta Basajaun liburudendara. **Zizurkilen,** Iriarte kultur etxera eta Arregi plazako kultur etxera. **Asteasun,** Kultur etxera. **Adunan** ostatura. **Larraulen,** herri- ostatura.